

Postu bakarragatik, ez da finalean izango Asier Azpiroz, Agin Laburu eta Beñat Gaztelumendirekin

Hiru bertsolarik lortu zituzten atzo, azkeneko finalurrekoan, zubietarrak baino puntu gehiago; eta bederatzigarren izan da azkenean. Astigartarra eta añorgarra izango dira, Iraulio Panttalone Bertso Kabiaren ordezkariak.

URUMEA BERTSOLARITZA

Zaila zeukan Asier Azpiroz zubietarrak, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finalera pasea lortzeko. Bere finalurrekoan 463 puntu lortuta zen, Hernaniko Iraulio Panttalone Bertso Kabiaren ordezkaria; eta behar zuen atzo, Tolosako azkeneko finalurrekoan, soilik bi lagunek lortzea, gehienez ere, berak baino puntu gehiago. Hiru izan ziren, ordea, eta bederatzigarren postu mikatzarekin agurtu da.

Jon Maiak irabazi zuen atzo, 494,5 punturekin; bigarren izan

zen Oihana Iguaran, 471rekin; eta hirugarren Beñat Lizaso, 469,5rekin. Jokin Urangak 456,5 lortu zituen, Iban Urdangarinek 444, eta Haritz Mujikak 432.

Hori horrela, Agin Laburu eta Beñat Gaztelumendi izango dira Hernaniko bertso eskolako ordezkariak, bi puntuazio altuenak lortuta. Eta haiekin batera, honakoak: Jon Maia, Alaitza Martin, Ane Labaka, Oihana Iguaran, Beñat Lizaso eta Nerea Elustondo. Donostiako Ilunben izango da finala, abenduaren 14an. Sarrerak, dagoeneko salgai: bertsosarrerak.eus. **K**



Beñat Gaztelumendi (eserita) eta Agin Laburu, duela lau urteko finalean.

Zabalik dago izena emateko epea gaurtik, kiroldegiko ikastaroen bigarren txandan

Bigarren hiruhilekorako apuntatu daiteke, uretako zein fitness aretoko ikastaroetan. Ikasle ohiek, abenduaren 18 edo 19an egin behar dute.

HERNANI KIROLDEGIA

Gaur zabaldu du epea Hernaniko kiroldegiak, bigarren hiruhilekoko ikastaroetarako; 2020ko urtarriletik apirilera izango diren horietarako, hain justu.

Abenduaren 16ra arte apuntatu ahal izango dute, aurretik ikastaroan parte hartu ez dutenek. Ikasle ohiek edo lehendik dauden ikasleek, berriz, abenduaren 18an edo 19an egin behar dute izenematea.

Kiroldegiko bulegoan egin behar da, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:00etara.

Interneten ere eskuratu daiteke izenematea orria: www.kirola.hernani.eus, ikastaroen atalean. Bertan dagoen izenemate orria bete, eta entregatu kiroldegiko sarreran, edo bidali posta elektronikoz, kirola@hernani.eus helbidera. Informazio gehiagorako, deitu 943 55 21 85 telefonora.

Uretako zein fitness aretoko ikastaroak daude aukeran. Igeriketakoak, adin guztietarako daude, hiru urtetatik hasita. Eta fitnesssean, korea, hipopresiboak, zein erditu berri duten emakumeentzako saioak eskaini dituzte. **K**

HERNANIKO KIROLDEGIA - Bigarren hiruhilekoa

Uretako ikastaroak:

- 2016koak: astelehen eta ostegunetan 17:15etan; edo larunbatetan 09:30etan
- 2015ekoak: astearte eta ostiralean 17:15etan; edo larunbatetan 09:30etan
- 2014koak: astelehen eta ostegunetan 18:10etan; astearteetan 17:15etan; edo ostiralean 18:10etan
- 2013koak: astearteetan 17:15etan
- 2012 eta 2011koak: ostiralean 18:00etan
- Hastapena helduak: astearte eta ostegunetan 08:00etan edo 19:50etan
- Hastapena 65 urtetik gorakoak: astearte eta ostiralean 10:30etan

Fitness aretoko ikastaroak:

- Korea: astearte eta asteazkenetan 17:30etan; astearteetan 18:00etan; edo ostegunetan 20:00etan
- Hipopresiboak: astearteetan 19:30etan (lehenago egon diren ikasleentzat soilik) edo 20:00etan; asteazkenetan 08:30etan; edo ostegunetan 11:00etan
- Hipopresiboak+luzaketak (erditu ondorengo emakumeentzat): astearteetan 10:30etan (hilabetero, izenematea begiraleen bitartez)



Odol emailleek zita, bihar arratsaldean

HERNANI ODOL EMAILEAK

Ohi bezala, hileko aurreneko asteartean jarri dute odola emateko zita, Hernanin. Bihar izango da, ambulatorioan, arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara. Azaroko hitzorduan, 44 lagunek eman zuten odola. Jakinarazi dute, aukera izango dela bihar, Odol Emaileen Elkartean Gabonetako loteria erosteko.

Argazki erakusketa gaurtik, emakume palestinarrei buruz

ASTIGARRAGA KULTURA

Abenduko kultur agendari hasiera emateko, erakusketa zabalduko dute gaur, Astigarragako kultur etxean. Argazki erakusketa izango da, Palestinako emakume errefuxiatuen inguruko «aurreiritzi eta este-reotipoak apurtzeko». Hilaren 13ra arte egongo dira ikusgai.

Trenbidearen Museora, ostiralean

HERNANI PORTU AUZOA

Irteera antolatu du Portuko Auzo Elkartek, ostiral honetarako. Azpeitiara joango dira, Euskal Trenbidearen Museoa bisitatzera; eta babarrun jana egingo dute ondoren. Autobusez joango dira, 09:45etan abiatuta, eta izena eman behar da aurrez, Pedro Mari tabernan.

Errotzen hAsteak bi zita, datorrenean

HERNANI HERNANI ERROTZEN

Hernani Errotzenek antolatuta, datorren astean izango da Errotzen hAstea. Bi zita jarri dituzte aurten: hilaren 10ean, Basconiako Dukerriaren estatus politikoaz ariko da Iñaki Lopez de Luzuriaga, 19:30etan Biterin; eta 11n, *Arantzazu*, harriz herri dokumentala jarriko dute, ordu eta toki berean.

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

EGURALDIA
GAUR Giro ilunagoa izango dugu. Zerua lainotuta egongo da, eta nabarmen jaitsiko da temperatura. Ipar-ekialdeko haize biziak, haunditu egongo du hotz sentazioa. Baliteke euria egitea ere, bereziki goizean; eta ekaizak jo dezake. Elur-kota, 1.000 metrora. **Min.7° / Max.11°**

BIHAR Behera egingo du tenperaturak, berriro. Ipar-ekialdeko haizea ibiliko da bihar ere, baina ahulago. Lainotuta egongo da goizean, eta euri pixka bat egin dezake; baina ostare zabalak irekiko dira eguerditik aurrera. **Min.5° / Max.9°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko Udala

Astigarraga Udala

Erretortxoko Auzo Udala

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

EUSKAL GOBIERNUA

Gipuzkoako Foru Aldudia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Euskeraren Eguna da bihar, ospakizun eguna eskoletan

Makina bat ekintza prestatu dituzte Urumea bailarako eskoletan, ospatzeko. Hernaniko udal eraikin gehienak, itxita.

URUMEA EUSKERAREN EGUNA

Euskeraren Eguna da bihar, abenduaren 3a; eta Urumea bailara osora zabalduko dira ospakizunak. Bereziki, eskoletara.

Izan ere, urtero bezala, egun berezia izango da eskola guztietan, Euskeraren Egunerako propio prestatutako ekintzekin. Hernanin, joan den astean hasi ziren jolas garaian euskera indartzeko jolasak egiten, Elizatxon; eta egun osoko egitaraua prestatu dute gaur. Langileen, berriz, abestiak, hizkuntzarekin lotutako jolasak... izango dituzte. Herri kirolak izango dira DBHkoen gaia Inmaculadan, eta *Txundi gaitzazu!* ikuskizuna eskainiko dute LH eta HHkoek.



Jendetza elkartu zen ostegunean, Biterin, Udal Euskaltegiaren Mintzodromoan.

Eta Urumean, abesti, dantza eta olerki emanaldia egingo dute.

Ereñotzuko Txirrita eskolan, berriz, arratsaldean elkartuko dira ikasle, irakasle eta gurasoak, frontoian, eta joko eta tailerrak, zein musika eta dantza izango dituzte. Eta Astigarragako Herri Eskolan, erromeria izango dute ikasle eta irakasleek arratsaldean, areto nagusian elkartuta.

Hernaniko udal egutegian, jai Bestalde, Hernaniko Udalak jakinarazi du, abenduaren 3a ja-

ieguna dela udal egutegian; eta aurten, abenduaren 2an ere jai dutela udal langile gehienek.

Hori horrela, itxita egongo dira udal eraikin gehienak, gaur eta bihar: udaletxea, Udal Euskaltegia, Biteri eta liburutegia, esaterako.

Kiroldegiak ohiko ordutegia izango du gaur, eta 08:30etatik 13:30etara zabalduko dute bihar. Gaztelekua, berriz, gaur bakarrik egongo da itxita, ohi bezala. Eta ohiko ordutegia izango du Hernani Musika Eskolak ere, bi egunetan. **K**

Bi hilabeterako programa berezia osatu du Gaztelekuak

Abenduko eta urtarrileko ekintzak eman dituzte aditzera, neguko oporraldikoak barne; orduan, gainera, lau orduz egongo da zabalik.

HERNANI GAZTELEKUA

Abenduko bakarrik ez, urtarrileko ekintzen egitaraua ere osatu du Hernaniko Gaztelekuak; eta tartean dira, noski, neguko oporraldirako prestatu dituztenak ere. Horrela, zirku tailerra egingo dute abenduaren 26an, Biterin; Donostiako Txuri-Urdin izotz pista egingo dute irteera, hurrengo egunean; eta Irungo Karting Indoorrera joango dira urtarrilaren 4an.

Gainera, neguko oporraldian, egunean lau orduz egongo da zabalik Gaztelekua.

Baina ekintza horiek guztiak baino lehen, gehiago izango dituzte, bihar bertan hasita: Kahoot izeneko jolasarekin ariko dira. Eta ostegun eta ostiralean, Euskeraren Eguna ospatuko dute, bi ekintzarekin. **K**

ABENDUKO EGITARAUA

- 3, Kahoot jolasa
- 4, Mahai-jolasak euskeraz
- 5, Hizkuntzen murala
- 10, Pelikula: *Diarios de la calle*
- 11, Balore solidarioak
- 12, Sukaldaritza: bizkotxoak
- 13, Gaztelekuko eskubideak eta betebeharrak
- 15, Gaztelekua apaindu
- 17, Eskulana: zuhaitzak
- 18, Nairobitarra jolasa
- 20, Wii bideojokoa
- 21, Txistor-jana Gaztelekuan
- 26, Zirku tailerra, Biterin
- 27, Txuri-Urdinera irteera
- 28, Urte bukaerako desioak

*Abenduaren 2, 7, 8, 9, 16, 23, 24, 25, 29, 30 eta 31n itxita

URTARRILEKO EGITARAUA

- 2, Ideien zaparrada
- 3, Pelikula: *Las ventajas de ser un marginado*
- 4, Irungo Karting Indoorrera irteera
- 9, Eskulana: koadroak margotu
- 12, Eskulana: pultsera tailerra
- 14, Merienda osasuntsua
- 16, Ideien zaparrada
- 17, Henna tailerra
- 22, Saskibaloia, Latsunbeko kirol pistan
- 25, Mastertxef: pintxoak
- 28, Hama Bead tailerra
- 30, Ekintza izarra
- 31, *Virus!* txapelketa

*Urtarrilaren 1, 5, 6, 7, 13, 20 eta 27an itxita

Neguko oporraldian, lau orduko izango da ordutegia

300 deskontu-bono gaurtik, ia 70 dendatan

'Hernani-Bonoa' kanpaina jarri du martxan Berriak elkarteak, eta 300 deskontu bono egongo dira salgai.

HERNANI BERRIAK ELKARTEA

Bigarrenez jarri du martxan, Berriak merkatari eta ostalarien elkarteak, *Hernani-Bonoa* kanpaina. Eta gaurtik abenduaren 10era bitarte (edo bukatu arte), 300 deskontu bono jarriko dituzte salgai, elkarteko ia 70 dendatan erabiltzeko.

Bonoak Berriak elkartearen lokalean (Andre kalea 30) eskuratu ahal izango dira, goizeko 09:00etatik 14:00etara, edo arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.

Bono bakarri erosi ahal izango da, NAN bakoitzarekin; eta gehienez ere, bi NAN aurkeztu ditzake, pertsona bakoitzak.

%20ko deskontua, erosketetan

Bono horiekin, %20ko deskontua jasoko dute herritarrek, erosketak egiterakoan. Izan ere, 40 euroan erosi dute bonoa, eta horrekin, 50 euro gastatu ahal izango dituzte, kanpainarekin bat egin duten komertzioetan. Gainera, Hernani Txartela daukatenean, 40 euro beharrez, 38 euro ordainduko dituzte.

Urtarrilaren 6ra arte erabili ahal izango dira bono horiek, mota guztietako ia 70 dendatan: elikadura, jantziak, oinetakoak, aisialdia eta kultura, kirolak, edergintza... Denda horiek, kanpainaren kartela izango dute eskaparatean. **K**

Astebeteko epea, kartelak aurkezteko

HERNANI INAUTERIAK 2020

2020ko inauterietako kartela aukeratzeko, lehiaketa jarri du martxan Hernaniko Udalak; eta datorren astelehena da, proposamenak aurkezteko azkeneko eguna. Biterin entregatu behar dira, formatu digitalean. 32 zentimetroko zabalera izan behar dute, eta 48 zentimetroko altuera. Hernaniko Inauteriak 2020 goiburua izan behar dute. Sinadurarik gabe entregatu behar dira, kartazal itxian; eta bertan zehaztuko dira izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Irabazleak, 600 euroko saria jasoko du: 300 euro dirutan, eta beste 300 euro Berriak elkarteko dendetan erabiltzeko.

Loteria salgai, elkarte eta taldeek

HERNANI GABONETAKO LOTERIA

Urtero bezala, Gabonetako loteria jarri dute salgai, Hernaniko hainbat elkarte eta taldek: Dobera Euskara Elkarteak, Berriak elkarteak, Goiz Eguzkik, CD Hernaniko atletismo sailak, Hernani Errugbi Elkarteak, EAJ-PNVk, eta PSE-EEK.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I. URTEURRENA

Carlos Ezeiza Ruiz

2018ko abenduaren 2an hil zen, 70 urte zituela

*Orain dela urtebete joan zinen,
baina zure bihotz handiagatik
eta zure maitasunagatik
gogoan zaitugu.*

ANA ETA XAXI (Euskal preso politikoa)

Hernanin, 2019ko abenduaren 2an

IRAGARKI MERKEAK

Etxea salgai Epelen, 51 m2, garajearekin. **Deitu: 672 248 563**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**